

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMAI

Errebotea

5 zbk.

2005eko apirilaren 10a



Villabonak urtetan eutsi dion kirolari buruz hitz egitera goaz *Lumane* aldizkariaren 5. zenbakian. Errebotea izango dugu mintzagai, noski. Gure herrian ondo errotutako tradizioa. Errebotearen inguruan hainbat pasadizo bildu dugu. Aldizkari honetan, herritar gehienek ezagutuko ez dituzten pasarteak ageri dira; oso kontu bitxiak, zalantzarik gabe. Lau kidek lagundu digute errebotearen zenbakia osatzen. Pilotariak izan ziren Pako Etxenikek, Anjelito Ugartek eta Migel Lertxundik batetik, eta, pilota jarraitzailea den Joxe Ugartemendiak bestetik. Laurak ere, errebote gaitan eta pilota kontuetan adituak.

Errebotearen zenbakia osatzeko, partaide berria izan dugu gure artean. Erreboteko sakalari izan zen Pako Etxenike villabonatarra. Kale Nagusian jaio zen 1920 urtean, Salvadora papertegian egin zuen lan urtetan. Erreboteaz gain, beste gairen baten inguruan ere parte hartu nahiko balu, badaki ateak zabalik dituela, gainerako herritar guztiek bezalaxe. Ongietorriak izango dira guztiak gure artera.

Gatozen errebotearen pilotakaden oihartzunak jasotzera. Garai bateko Errebote Plazan kokatzera. Lasai eta erne irakurtzea da gure gomendioa, datu asko dator segidan...



Pako Etxenike, *Lumane*ko partaide berria.

ERREBOTEA BETERRI-AIZTONDO BAILARAN

Beterri-Aiztondo bailaran, Villabonan besterik ez da mantentzen errebotean jokatze ohitura baina, Zizurkilan, Asteasun edo Andoainen ere asko jokatzen zen garai batean. "Guk ezagutu ez bagenuen ere, Zizurkilgo udaletxea dagoen plazan, errebotean jokatzen zen lehen. Asteasuko eta Andoaingo plazetan ere jokatzen zen errebotean aspaldi batean.

Herri ezberdinetako pilotarien arteko txapelketak antolatzen ziren orduan. Ohitura galduz joan da; inguruan, Villabona da jokoari eutsi dion herri bakarra". Errebotean jokatze ohitura aspaldianikoa da Villabonan. 1880 urte inguruan, Pedro Yarza "Villabonako besamotza" pilotari ezagunak, pilota eskola sortu zuen herrian eta ume eta gazte

ugarik ikasi zuen pilotan jokatzen pilotari handiaren esanetara. Villabona eta Markiña pilotarien sehaska zirela esaten zen. Zubietan ere pilotan jokatze ohitura handia zegoen baina, errebotean soilik jokatzen zen bertan. Villabonan pilotaren modalitate ezberdinak lantzen ziren: zesta-puntan jokatzen zen gehien, baita errebotean eta eskuz ere.

ERREBOTEA ETA TENISA

Errebotea nolabait deskribatzearen, hizlariak tenis jokoarekin parekatu dute. Tantuak ere berdin-berdin zenbatzen dira. Tenisaren tantuen kontaketa, erreboteko puntuak zenbatzeko moduan oinarritu zen. Bi jokoez badute parekotasun gehiagorik: tenis jokoan pistaren erdian sarea izaten den moduan, errebotean, pilotariak egiten dute muga hori. Talde bakoitzeko bi pilotari, pilotalekuaren erdian kokatu ohi dira; horien ardura, aurkariaren pilotakadak geratzea izaten da. Erreboteko pilotariak sarearen papera betetzen dutela esan daiteke, beraz. Egungo pilotarien pozerako, "oraingo

pilotariak gu baino hobeak dira pilotak geratzen... bai, bai, bai", esan du ziurtasunez Pakok, "gaurko pilotariak kirol asko egiten dute, biguntasuna nabari zaie. Erreflexu hobeak dituzte agian" gaineratu du Joxek. Erdiko pilotariek gain, talde bakoitzean, beste hiru aurrelari izaten dira. Bost pilotarik osatzen dute guztira erreboteko taldea.

Umetan, esku pilotan jokatzen hasten ziren pilotari gazteak. Gaztetan ekiten zioten erreboteari. Errebotean aurrerari ziren hainbat pilotarik, joko-garbian ere jokatzen zuten. Plazaren erdian, pilotak geratzen aritzen zenak, ordea, ez zuten parte

hartzen. Errebotean eta joko-garbian jokatze zestoak, berdinak dira baina, joko guztiz ezberdina da: "Joko-garbia, eskuz, paretaren kontra jokatzen den modu berean jokatzen da. Paretaren kontra bai baina, pilotak margotutako paretaren barruan sartu behar du. Borobil gunetik kanpora, paretaren zati zurian botea joz gero, falta izaten da. Puntuen kontaketa ere, esku pilotaren modu berean egiten da: bat, bi, hiru, lau... Normalean, berrogeita hamar puntura izaten da joko. Villabonak zesta-puntari asko eman zuen nahiz eta joko horrek, errebotearekin inolako loturarik ez izan.

PILOTARIEKIN BATERA, IRUDI GEHIAGO

Erreboteko partida guztietan, puntu-kontalariak paper garrantzitsua bete ohi zuen. Tantuak kantuan zenbatzen zituen, ahots goran. 'Kintzena, jauna!', 'treintana, jauna!'... Duela denbora gutxi hil zen herriko azken puntu-kantaria, 'Tximela' moduan ezaguna, Juanito Garmendia zuen izena. Aurretik, kantari asko izan zen herrian; horien artean, Patxi Zumeaga ezagutu zuten hizlariak, baita 'Errexil difuntoa' edo Moises Barbé ere. Jendeak, kontaketa oso zaila dela pentsatzen duen arren, errebotean pun-



Juanito Garmendia 'Tximela' puntu-kantaria

tuak tenisean bezalaxe kontatzen direla aipatu dugu lehentxeago. Puntuak hamabost, hogeita hamar edo berrogei izaten dira eta partida, hamairu puntura jokatzeko da, oro har. Hori bai, hamabost puntutik hogeita hamarrera igarotzeko, bi joko irabazi behar dira jarraian; gainerakoan, jaitsi egiten baitira tantuak. Erreboteko puntu-kontalarien ezaugarriak nagusiena, beraz, emaitzak kontu bidez ematea da. Oso kontu berezia da, errebotea baita bide hori jarraitzen duen kirol bakarra. Azken urteetan, 'Tximelak' puntuak kantatzeari utzi zionetik, herriko plazan ahotsen bat falta da. Errebotearen ezaugarri bat galdu aurretik, ez ote da inor puntu-kantariaren irudia berreskuratzera ausartuko? Puntu-kantariak gain, apaizak ere paper berezia izaten zuen partidetan. Ia kasu guztietan, igande goizeko 11:30etan hasten ziren errebote partidak. Lehen ordu erdia jokatu eta gero, udaletxeko ordulariak eguerdiko kanpaiak jotzean, partida geratu eta apaiza sartzen zen pilotalekuaren erdira, Anje-



Migel Lertxundi, Pako Etxenike, on Roman, Benedicto Santa Maria, Baldomero Lertxundi, Luis Zubiri eta Ramon Mintegia Anjelusa errezatzen.

lusa errezatzen. "Kasu bat baino gehiagotan, udaletxeko erlojua geratu izan zuten, partida hain azkar ez mozteagatik. Orduan, aguazila arduratzen zen erlojua bere ordura ekartzeaz". 'Aita gurea' errezatzen zuten apaizak, pilotariak eta gerturatutakoek Anjelusaren garaian. Hasiara-hasieran, latinez errezatzen zen; geroago euskaraz.

ZESTOAK, PILOTAK ETA SAKE-HARRIA EDO BOTILLOA

Erreboteko pilotarien tresnarik garrantzitsuen zestoak dira. Bi zesto mota daude: zesto zabalak edo guanteak batetik, erdiko pilotariak, pilotak ateratzeko eta geratzeko erabiltzen dituztenak eta; zesto luzeagoak bestetik, alde batetik bestera pilotak jaurtitzeko erabiltzen dituzten pilotarientzat. Hala ere, errebotean, zesta-puntan baino zesto motzagoak erabiltzen direla zehaztu dute. Pilotak ere bereziak izaten dira, erreboterako propio egindakoak, gogorak. Errebotean jokatzeko beste tresna garrantzitsua bat, pilotak sakatzeko sake-harria edo botilloa da. Hizlariak ez dute pasarte polit bat azaltzeko aukerarik galdu, "ba al dakizu Villabonako sake-harri zaharra non dagoen? Frontoiaren zimentuetan,

frontisaren azpian. Oraingoa egurrezkoa den bezala, harrizkoa zen lehen sake-harria, mazi-zoa, hankarik gabea. Frontoia egin zutenean, lurraren azpian sartu zuten. Nori bururatu ote zitzaion ideia? Gure herriaren eta historiaren altxorra da harri hori. Balio handia duen ondasuna. Laster, berrikuntzak direla eta, frontisa botako dutenez, sake-harri hori berreskuratzea polita litzateke".

Hizlari guztiak ez dira iritzi berekoak, "harrizko botilloa ez dago frontisaren azpian; plazan, Upai tabernaren ondoan baizik. Pedro Yarza 'Villabonako besamotza' ri egin zioten oroimen-harriaren harria da antzinako sake-harria. Antzinako pilotariak jokatu zuten harri horrekin eta bai, desagertuta egon

zen baina, atera zutenean, lehenik Barbe denclaren parean jarri zuten eserleku bezala. Pedro Yarzaren ehungarren urteurrena bete zenean, lekuz aldatu eta oroigarri bezala jarri zuten" zehaztu du Migelek. Hortxe, bada, sake-harriaren misterioa!



Zestoak eta pilotak, erreboteko tresnak.

PILOTARIEN ARROPAK, ZURIAK

Orduko pilotariak, gaurkoek bezalaxe, gal-tza eta alkandora zuriekin jokatzeko zuten. Baina oinetako moduan, alpargatak erabiltzen zituzten, zuriak horiek ere. Gerrian gerriko gorria edo urdina, egokitzen zitzaie-

na. Hainbat pilotarik, txapela jantzita jokatzeko zuten errebotean, tartean Karlos Etxenikek. "Hasiara batean, nork bere jantziak eta zestoak erabiltzen zituen. Nahikoa lan egin behar izaten zen pilotan jokatu ahal

izateko!". Denborarekin, Behar-Zana elkarretetik hartzen zituzten errebotean jokatu ahal izateko zestoak. Laguntza handia zen hori pilotarientzat, zestoak crostea oso garestia baitzen.

BEHAR-ZANA ELKARTEAREN SORRERA

Hizlariak pilotan jokatzeko hasi zirenean, dagoeneko bazegoen Villabonan Behar-Zana elkarteak, 1946 urtean inauguratu zen. Elkartea zabaldu aurretik, ordea, Periodista tabernan biltzen zen hainbat herritar pilotaren inguruko kontuak lotzeko. "Lanarako borondatea zegoen orduan, baita pilotarekiko afizioa ere". Ramon Mintegiak egiten zuen taldearen buru baina, Klaudio Sainzar, Remigio Ayestaran, Baldomero Lertxundi eta beste hainbat herritar ere elkartzen zen. Jarraitzaile ugari biltzen zuen

orduan ere pilotak. Behar-Zana elkarteak sortzeaz zela, bazkide ugari elkartzen zen pilotaren inguruan; "bazkideek, bi pezeta eta berrogeita hamar zentimo ordaintzen genuen urteko kuota. Orain huskeria dirudien kopuru hori, orduan, nonbaitetik sortu egin behar izaten zen" gogoratu du Joxek. Egun, Behar-Zana elkarteak dagoen eraikina, batzokia izan zen gerra aurretik. Francoren diktaduraren garaian zabaldu zen elkarteak, arau



BEHAR ZANA K.E.

zorrotzen menpean, "kirol elkarteak bakarrik izan zitekeen Behar-Zana. Orduan ere gorrotoa baitziguten euskaldunei... Beste zerbaitek egingo ote genuen beldurra zuten". Elkartea sortu eta gero ere, lan handia egin dute pilotaren etorkizunari eusten. 240 bazkide ditu Behar-Zana elkarteak egun eta horien artean, Joxe Ugarte mendia Lumaneko kidea, "bazkide zaharrena naiz, zerrendako lehenengoa".

ERREBOTEKO MUNDIALAK

1952 urtean, Donostiako Amara auzoan, pilotaren historia guztian jokatu den mundu mailako errebote txapelketa bakarria jokatu zen. "Lehen partida bertan behera geratu zen euri zaparrada zela eta. Mundialak irauten zuen bitartean, nahi izanez gero, hotela doan geneukan Donostian. Lanera joan behar izaten genuenez, gu etxera etortzen ginen lotara. Villabonako Izkiña tabernako jabeek, Izkiña izeneko beste taberna bat zuten Donostiako Alde Zaharrean, Bre-

txa azoka baino aurreraxeago, eta bertan bazkaltzen genuen Mundialaren garaian. Hamabost bat egun iraun zuen txapelketa". Villabonako taldeak Iparraldekoen kontra jokatu zuen eta bigarren postua lortu zuen "beharko, beste talderik ez zen eta... Francok Martin Artajo ministroa bidali zuen sariak ematera. Gerora, Mundiala jokatzeko, gutxienez hiru talde behar zirela esan zuten. Bi talde besterik ez zeudenez, ez zen berriro jokatu". Gure artean dugu partida

hartako kideetako bat, Pako Etxenike. Pako rekin batera, Joxe Mari Zalduak, Migel Zalaikainek, Karlos Etxeniketik eta Antonio Arratibelek jokatu zuten txapelketa historiko hartan. Iparraldeko taldeko pilotariak, berriz, hiru Donibane Lohitzunekoak ziren, Baigorriko bat eta Sarako beste bat. "Iparraldeko pilotarien artean bizirik daudenekin, oraindik ere harremana mantentzen dut. Noizean behin, bazkaltzeko elkartzen gara" adierazi du Pakok.



Historiako mundu mailako errebote partida bakarria, Amarako pilotalekuan.



Antonio Arratibel, Pako eta Karlos Etxenike goian. Joxe Mari Zaldua eta Migel Zalaikain behean. Munduko txapelketako Villabonako taldea.

PILOTARI UGARI PILOTALEKURIK EZ ZEN GARAIAIN

Joxek gogoeta sakona ekarri du bilerara, "Villabonan frontoirik ez zen garaian, nola demontre atera ote zen hainbeste pilotari? Hortxe dago artea! Harrituta askotan egiten diot galdera hori nire buruari". 1932 urtera arte ez zen frontoirik izan Villabonan. Pedro Yarza 'Villabonako besamotza' pilotari ezagunaren ga-

raian, pilota eskola bazen baina, ez zegoen pilotalekurik herrian. Udaletxe azpiko arkupeetan frontoi luzea deitzen zioten gunea zegoen eta parean, motza. Hortxe jokatzeko ziren pilota partidak hasieran. Villabonako pilotariak tarte horietan jokatzera ohituta zeuden baina, kanpoko pilotariak etortzen zirenean, nahikoa lan



Frontoi luzea udaletxe arkupeetan.



Frontoi motza, luzearen parean.

izaten zuten. "Atano III.a etorri zen behin eskuz jokatzera. Azkoitiarrak Villabonako Karlos Etxenikereren eta Bernarásen kontra jokatu zuen bakarrik. Oso pilotari ona izanagatik, ezin zuen Villabonako 'frontoi' hartan moldatu. Itxurarik gabe irabazi zien villabonatarrek. Herrikoak ohituta baitzeuden 30 metro ere izango ez zituen 'frontoian' jokatzera"

ra" azaldu du Pakok. Gerora, plaza librean jokatzeko zuten, ezker paretarik gabe, pilota frontisera zuzenean botatzen. Plazaren erdi-erdian, idi-apustuatarako harrizko bidea zegoen, "arriskutsua ere bazen pilotan jokatzera. Nik behin, paretan salto egin, pilota zestora etorri beharrean sudurrean jo eta, hezurra puskatu zidan" aipatu du Anjelitok.



Joxe Ugartemendia

"Villabonan frontoirik ez zen garaian, nola demontre atera ote zen hainbeste pilotari?"

PILOTAKADAK

Pilotakaden ondorioz, istripu bat baino gehiagoren berri eman dute *Lumaneko* kideek. Pilotak belaunean jo eta erren geratu zen Migel Lertxundi. Baigorriko pilotari batek, begia galdu zuen pilotakada ederra jaso eta gero. Hizlariak pilota ziztu bizian etortzen zela diote, indarrez botatzen zela eta gaizki joz gero, ordaina! Horrelako istripuen aurrean, orduan ez zen inolako diru-laguntzarik izaten.

"Nik ere hartu nuen golpe ederra bularrean" dio Pakok, "gogoan dut, bai; han ninduan ni ere" aipatu du Joxek. "Plentziako festetatik deitu gintuzten behin. Han ez zen errebotean jokatzeko ohiturarik eta Villabonako eta Hazparrengo taldeak joan ginen erakustaldia ematera. A ze bularrekoa hartu nuen. Hurrengo egunean lanera joan behar, hala ere" gogoratu dute barrezka. Orduan ez zen, ba-

bes modura, sarerik jartzen; "kontu berriak dira horiek". Pilotakaden inguruan bazen esatera bat: '*Si la pelota pega a al-guien, a de ser forastero. A villabonatarra no le pega la pelota*' eta hala gertatzen omen zen, gainera. Villabonako pilotak norbait jotzen bazuen, 'zein da?' galdetu eta 'kanpokoren bat' izaten zen erantzuna. Iparraldean ere sarerik gabe jokatzeko, librean.

PILOTALEKUEN EZAUGARRIAK ETA ANTZINAKO OHITURAK

Errebotean jokatzeko pilotalekuak, irekia behar du izan eta bi pareta behar ditu. Villabonakoaren antzekoak dira denak, hori bai, Iparraldeko pilotalekuen plazak Villabonakoa baino luzeagoak dira. Villabonakoak 75 metro baino gutxiago ditu eta Iparraldeko gehienak 100 metrokoak dira. Elizondora urtero joaten ziren villabonatarrek Santa Ana egunean jokatzera eta hango pilotalekua oraindik eta handiagoa zela diote, 120 bat metro izango zituen. "Oraingo pilotariak apenas joaten diren Elizondora". Villabonan, San Inazio egunean izaten zen errebotearen egun hadia. Uztailaren 31n, Iparraldeko pilotariak etortzen ziren herrira eta ongiatorria egiten zitzairen Iru Aldeta parean. Handik plazaraino, txis-



Pako Etxenike

"Guri ere ongiatorria egiten ziguten Iparraldera jokatzera joaten ginenean"

tulariekin batera etortzen ziren kalejiran. Partida jokatu eta gero, Arantzabi jate-txean bazkaltzen zuten guztiak batera. "Guri ere ongiatorria egiten ziguten Iparraldera jokatzera joaten ginenean". Harrerez hizketan hasita, aspaldi batean, pilotari handiak herrira etortzen zirenean, musika bandak egiten ziren ongiatorria.

Egun handiak izaten ziren haiek. "Gure aita, 'Chiquito de Villabona' herrira etorri zenean, tren geltokian zain zegoen herriko musika banda. Nik bi urte izango nituen. Gerora galdu egin zen ohitura hori" zehaztu du Anjelitok. Pilotariak, herriarekiko esker-ona erakusteko, ardo zahagi bat erosi eta herritar guztien eskura jartzen zuten plazan, edan nahi zuenarentzat. Edari hotzak edateko ohitura kanpotik ekarri zuten Villabonara pilotariak baina, ez hori bakarrik. Baita esnegorri edo errobelloi perretxikuak edo xapoa jateko ohitura ere. Jaki ezberdinak pilotariarekin batera iritsi ziren, beraz. "Ordura arte, egunero babarrun gorria jaten genuen eta igandetan, egun berezia zelako, babarrun zuria".

PEDRO YARZA 'VILLABONAKO BESAMOTZA'

Pedro Yarza "Villabonako besamotza" izan zen errebote jokalaririk onena eta ezagunena, "haren ondoan, denak ere, erdi-mailakoak izan gara" gogoeta egin du

Anjelitok. Pilotari handi hark ere badu bere historia: Istripu baten ondorioz eskuin besoa galdu zuen. Gertaera haien ondotik, ezker besoarekin jokatzeari ekin

zion, "beso batekin edo besteare-



Errebotea

kin, fenomeno handia izan zela argi dago". Besamotzaren mendeurrenean, oroi-garri gisa Villabonako plazan jarritako harriak, 1861-1961, 29-junio, *Centenario de Pedro Yarza 'Manco de Villabona'* dio. Hizlariak erdi-erorian dagoela adierazi dute eta igeltsu pixka batekin, ondo kokatzea ez legokeela batere gaizki. Besamotzarekin batera, pilotari handien zerrandan kokatu dituzte hizlariak Jaime



Anjelito Ugarte

"Haren ondoan, denak ere, erdi-mailakoak izan gara"

Blenner edo Jose Ugalde 'Pupú' villabonatarak. Jaime Blenner munduko txa-

pelduna izan zen zesta-puntan. 1926 urtean 100.000 pezeta eman zizkioten Barzelonako frontoi batetik bestera pasatze-agatik. "Villabona guztia erosi eta oraindik dirua sobratuko zitzaien. Pilotaren urrezko garaia izan zen" dio Migel Lertxundik. Villabonako pilotari onentsuenetakoa, Ramon Garmendia Intxausti izan zela ere azaldu du "hori fenomenoa izan zen, aurrelaririk hoberenetakoa".

ETXENIKETARRAK

Pako Etxenike eskuz jokatzen hasi zen pilotan, gero sakalari bezala trebatu zen eta erreboteari ekin zion orduan. Karlos eta Pako, bi anaiak txandaka ibiltzen ziren sakalari lanetan. Pakok, Etxenike I izenarekin jokatzen zuen eta Karlosek, Etxenike II izenarekin. Pako jokatzen hasi zen garaian, ez zegoen herrian pilota eskolarik, "txikitari, frontoian elkartu eta lagun artean ikasten genuen pilotan jokatzen. Taldean jokatzen genuen baina, txapelketetatik kanpo. Orain baino gutxiago jokatzen zen orduan, jai egunetan bakarrik". Iparraldeko taldeekin harremanetan izaten ziren eta Santiotan, Iparraldeko pilotariak Villabonara etortzen ziren moduan, villabonatarak Iparraldera joaten ziren bertako jaietan: Hazparnera, Baigorriera, Donibane Lohitzunera, Sarara... Pako Etxenike, Anjelito Ugarte eta Migel Lertxundi hizlariak, talde bere-

an jokatzen izan zuten errebotean, "Gure taldea, Joxe Mari Zalduak, Migel Zalaikainek, Antonio Arratibelek, Karlos eta Pako Etxenikek eta Anjelito Ugartek osatzen genuen. Txandaka jokatzen genuen. Baina erreboteko pilotarien zerranda luzea da herrian, tartean lertxunditarrak, garmenditarrak edo kintanatarak...". Orduan, 14 eta 15 urterekin, gazte asko joaten zen kanpora pilotan jokatzerara. Pakoren beste anaia bat ere pilotaria izan zen, 16 urte zituela abiatu zen Andoni Etxenike zesta-puntan jokatzerara. Zaragozara joan zen lehenik, handik Napolesera. Soldadutza egokitutakoan, Napolestik zuzenean Ameriketara abiatu zen eta besteak beste, Mexikon edota Estatu Batuetan aritu zen jokoan. Gaur egun Mexikon bizi da, "tarteka etortzen da Villabonara" adierazi du Pako anaiak. Herritik kanpora ateratzen ziren pilota-

riek zesta-puntan jokatzen zuten, ez errebotean. Errebotea Euskal Herriko ohitura da eta gure lurretan bakarrik jokatzen da pilotaren modalitate horretan. Zesta-punta, ordea, munduan zehar zabalduta euskal kirola da. "Amerika alde horretan, geroztik etorri zen pilotan jokatze ohitura. Euskal Herriko Estatu Batuetara jokatzerara joan aurretik, Brasilerara joaten ziren pilotariak". Tartean ugartetarrak.



Pako Etxenike pilota geratzen.

UGARTETARRAK, HIRU BELAUNALDI

Anjelito Ugarteri familiatik datorkio pilotari sena, bere aita 'Chiquito de Villabona' pilotari profesionala izan zen eta baita bere aitona Manuel Jauregi ere. "Bost urte nituenean, zesto txiki bat hartuta, jada errebotean aritzen nintzen. Ume-umetan, zesto txiki batekin hasi nintzen behin su-

kaldean jolasten eta amonak, zestoa kendu zidan. Orduan, kazuela baten taparekin jarraitu nuen eta amonak tapa kendu zidan. Kazoarekin segi nuen nik eta amonak, kazoa kendu zidan. Azkenean, hasieran egin behar zuena egin zuen amonak: pilota kendu zidan". Erreboteko jokalariek

izanagatik, hiruak zesta-puntariak ere izan ziren munduan barrena. Anjelitoren aitak hamazapi denboralditan zehar jokatzen zuten Brasilen. Leku gehiagotan ere aritu zen: Egipton, Alejandrian, Italian... Pakok, Anjelitorekin errebotean behin baino gehiagotan elkarrekin jokatzen zutelara adierazi du, "Iparraldera jokatzerara joaten ginenean, *Champion du monde. L'acrobate* moduan iragartzen zuten Anjelito karteletan". Jarraian, hiru belaunalditan, familia berean pilotariak izan dira ugartetarrak. Segidako bi belaunalditako pilotari gehiago izan da Villabonan; iraolatarrak, zalduatarrak, garmenditarrak... Aipatu hirur belaunaldien kasua, ordea, bakarra da.



Manuel Jauregi.



Jose Manuel Ugarte 'Chiquito de Villabona'.



Anjelito Ugarte.

ANJELITO UGARTE

Brasilen jaio zen Anjelito, bere aita bertan ari baitzen pilotan jokatzeko. Bi urte zituela, Brasildik Villabonara etorri zen. Sei urte zituenean, berriro Brasilerara itzuli zen ama-ekin, aitak bertan jarraitzen baitzuen pilotan. "Han, pilotan jokatzeko hasi nintzen nire. Gerra garaian Villabonara itzuli ginen berriro, nik 11 urte nituela. 18 urte bete nituen arte geratu nintzen bertan eta orduan, Tenerifera atera nintzen, zesta-puntari profesional modura. Han nengoela, soldaduzarako deitu ninduten; inolako arrazoirik gabe, ni brasildarra bainintzen. Epaile batek nire zerbitzuaren bukaeran, 'usted a querido dar una propina a Franco' esan zidan. Ez zen inondik ere horrela izan. Soldadutzaz egiteagatik, Filipinetara jokatzera joateko bi kontratu galdu nituen, gainera. Gasteizen eta Zaragozan egin nuen soldadutza. Egia esan, pilotan jokatzeko jarraitzeko aukera izan nuen, ez zen ohikoena. Diru polita irabazten nuen". Soldadutza amaitutakoan, kontratu gehiago iritsi zitzaion Anjelitori. Panticosako frontoira joan zen lehenik, bi hilabeterako, "bai, Panticosan estali gabeko frontoi txiki bat zegoen, inork ez badaki ere". Handik Mallorcara joan zen eta oporraldian, Villabonara itzuli zen erre-

boteko partida jokatzera, herriko jaietan. Ahal zuenean, ez omen zuen erreboteko partidarik jokatzeko aukerarik galtzen Villabonan. "Dirua zesta-puntarekin egin nuen baina, bihotza errebotean neukan". Villabonako Santio jai horietan, Pilota Federazioko Karmelo Balda etorri zen Miami-ko Richard Berensonekin batera, partida ikusteratzen. Berensonek, zesta-puntariak nahi zituen Miami-ko eramateko. Ni 'eroa' nintzen jokoan, saltoka ibiltzen nintzen, lurtean bueltaka... Jokoan ikusi ninduenean, 'zein da fenomeno hori?' galdetu zion Baldari nigitik. Hark zesta-puntaria nintzela. 'Guk Miami-ko jokatzeko dugun joko bera jokatzeko duela?', 'Bai, berbera'. 'Badauka kontratua!'. Zesta-puntako erakustaldirik eman gabe lortu nuen Miami-ko kontratua. Hori ez da sekula gertatu pilotaren historian. Garai hartan Miami-ko joatea, sinestezina zen. A ze poza!". Miami-ko kontratuekin joan eta lau urtez jokatu zuen bertan. Inguruko hirietako pilotalekuetan ere jokatu zuen hamar denboralditan zehar. Cuban, Mexikon edo Italian ere ibili zen pilotan, 38 urte bete zituen arte. 28 urtean zehar aritu zen profesional mailan jokatzeko. Pilota, istripu baten ondorioz utzi behar izan



Anjelito Ugarte, airean, pilotaren bila.

zuen. "Ia akabatu ninduen zaldi hark. Arrantxo bat geneukan Miami-ko eta zaldi basati baten gainean nenbilela, buruko galanta hartu nuen zuhaitz baten kontra. Orduz geroztik, bukatu egin zitzaizkidan niri pilota kon-tuak". Amaiera xelebrea, inondik ere. Joxek irteera polita erantsi du, "85 kilo izan bazenitu, zaldiak ez zintuen hain urrun botako, ez... Arina zinen eta!". Anjelitok bazuen errebotean jokatzeko berezitasun bat, "erre-bote kantxara zuri-zuri jantzita sartzen nintzen eta atera, berriz, beltz-beltza. Plazako zikinkeria guztia gainean nuela ateratzen nintzen. Jende asko gogoratzen da horretaz".

LERTXUNDITARRAK

Baldomero Lertxundi oso pilotari ona izan zen errebotean, oso sakalari ona. Inguruan eta Iparraldean aritu zen jokoan, "umetan hasi zen aita pilotan. Beloki villabonatarak erakutsi zion sakan. Errebotean jokatzeko gain, eskuz ere jokatzeko zuen. Behin, frontoi motzean, Etxaberekin desafioa izan zuen eta erraz irabazi zion. Kanpotik etortzen ziren pilotariak ezin zuten frontoi hartara egokitu. Aitarengaraian, gainera, motzagoa zen frontoi hura. Desafio asko izan zuen aitak, horien artean, Asteasuko Kortajarena 'Hondartza' ren kontra jokatu zuen eskuz Tolosako Beotibarren; guztiz bete zen pilotalekua. 1945 urtea zen eta aitak irabazi zuen: 22-3. Villabonako Tturko tabernan afaria egin genuen gero villabonatar askok". Aitarengaraian hartu eta pilotak sakatzen ikasi zuten semeek ere. Aurretik, ordea, eskuz jokatzeko ikasi zuten lertxunditar gazteek. Migelek bere aita Baldomeroekin batera jokatu zuen



Migel Lertxundi

"Jokatu dudana Villabonan jokatu dut, ez naiz inora pasa"

hainbat errebote partida, "16 bat urte izango nituen lehenengo partidatan jokatu nuenean. Joxe Segurolak min hartu zuenean, 'semea jartzak, ez zegok hobetik eta' esan zion aitari, hala jarri ninduten. Lehen partida hartan bigarren sakalaria izan nintzen baina, aurrelari moduan jokatzeko nuen batik bat". Migelek herriko partidetan jokatu zuen beti, "Jokatu dudana Villabonan jokatu dut, ez naiz inora pasa. Iparraldera bi txandatan abiatu nintzen baina, pasaporte gaizki egina zegoela eta, etxera itzuli behar izan nuen". Migelen anaiek ere lotura izan zu-

ten pilotarekin. Antton Lertxundik errebotean jokatu zuen Villabonan, herriko partidetan. Jose Inazio Lertxundi pilotak geratzen ibili zen errebotean baina, zesta-puntari moduan ezagunagoa da. Balearetan eta Kanarietan jokatu zuen lehenik, Miami-ko gero. Sei/zortzi urtez aritu zen jokoan Ameriketako. Benantxio Lertxundi ere pilotaria izan zen, hamabost urte zituela hil zen, "hura izan zen lau anaietan onena, fenomenoaren zena. Eskuz jokatzeko zuen".



Baldomero Lertxundi, pilota ateratzen.

ERREBOTEA ATZO ETA GAUR

Egun, errebotea askoz ere hobeto antolatuta dagoela uste dute hizlariek, "diru-laguntzak jasotzen dituzte eta asko laguntzen du horrek. Lehen, ahal zuenak bakarrik joka zezakeen pilotan, besteek begiratu beste aukerarik ez zuten". Gainerakoan, jokoa bere horretan mantendu

dela diote, "jokoa ez da aldatu baina, bai erraztasunak". Errebotearen inguruan sumatzen duten alderik nagusiena, egun, partidak ikustera oso jende gutxi gerturatzten dela da, "lehen plaza bete jende elkartzen zen. Plazako bi aldeak jendez gainezka izaten ziren eta baita inguruko

etxeetako balkoiak ere. Herritarrek ez ezik, inguruko eta urrunagoko herrietatik ere gerturatzen zen jendea. Kaleetan izugarritzko giroa izaten zen". Azken gogeta bat ere ekarri dute, "gaur Villabonako gazte gehienek ez dakite errebote jokoa zer den ere".



Pako Etxenike



Joxe Ugartemendia



Anjelito Ugarte




Migel Lertxundi

Pilotarien ahotik eta pilota jarraitzailearenetik jaso dugu errebotearen berri zerbaki honetan. Garai bateko kontuak; asko eta askorentzat kontu berriak, ezta? Hurrengoan gehiago!

...BILDUMAREN AZALAK ESKURAGARRI

Orain arteko zenbaki guztiak txukun-txukun gorde badituzue, aurrerantzean, bilduma osatu ahal izateko azala eskuragarri izango duzuela jakinarazi nahi dizuegu. Karpetak jasotzeko bi aukera dituzue: Bate-tik, aldizkaria jaso ohi duzuen okindegian edo dendan utz dezakezue zuen izena eta, bertan jaso ahal izango duzue azala lehenbailehen. Bestela, aldizkaria egiten dugunok jar zaitezke harremanetan; 943696450 telefono zenbakira deituz edo Villabonako Kale Berriko bulegora etorritz. Hortxe, bada, aukera...



...ETA HURRENGOAN ZER?

Maitzeko zenbakian, garai bateko jolasak izango ditugu mintzagai. Zein jolasetan jolasten ote zuten garai hartako neska-mutikoe? Ez zuten, noski, egungo haurrek eta gaztetxoek duten jolas aukera mordoa. Hala ere, irudimena lantzen zuten eta astialdian ez zuten aspertzeko denborarik izaten. Kirrinkiloa, kanikak, txapak, kurkuluxak, *yo-yoa*, diaboloa, kromoak, pilota, makilak, ziba edo soka ziren jostailu nagusiak. Txurrunmurruka, pote-poteka edo gorde-gordeka ere ibiltzen ziren, besteak beste. Jolas haien berri seigarren zenbakian izango duzue. Hizlariek badute zeresanik, eta irakurleok, ikastekorik!



KUTXA fototeka

ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Truxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, *Pilotaren Historia Billabonan* liburua eta artxi-bo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurjaritza KULTURA SAILA